

AGERKETA BERRIAK



Leizeak. — Zugarramurdi'n ba-da « Madaria » izena duan auzo bat. Orregatik nunbait « Madariako-arria » deitzen zaio ango gaintxo bati. Azalean lur gutxi, dena aizkorri, arraukaitz azkarra. An ikusi ditut leize bi : bata sortaldetik, bestea sartaldean (Ixtillarteko bordatik eroso).

Trikuarriak. — Erro'ko ibarrarena « Sorogain » mendia. Naparro'koan beraz. Mendi artan, **Elorrixaale** izena duen apal bat ba-da, et, antxe ikusi nuen trikuarri edo dolmen tankerako arripilla bat.

« Sorogain » tontorretik « Astakarria » leporat goazela, egi zabal batean daude bi trikuarri. Baten izena **Xantxoten-arriak**, besteari **Pilotasoro'ko trikuarria** deituko diogu, bere ondoan bait da pilotasoro bat.

Urepel'go lurretan ere ikusi ditut iru trikuarri : **Iraztei'ko** mendian bi eta **Kutxaxarreta'ko** egian irugarrena.

Aldude'ko lurretan ba-ditut beste iru trikuarri agertuak : **Berdariz'ko** lepo-lepoan bat ; **Urrixka**-mendian, eguteratik, bigarrena; andik goraxagoko apalean irugarrena, **Jeneralaren-tomba** deitzen diotena alegia.

Irurita'koan ere arkittu nuen trikuarri bat, « Argibel » mendian : sartaldeko arrikari batean dago.

Leen-baratz. — Urepel'go lurretan iru leen-baratz edo kromlech (bada-ezpadakoak) arkittu ditut : **Orzorrotz** gañean bat eta **Argaiko-arria**'ren ondoan bi.

Atalosti'ko egian, « Lindus » gañetik egoaldera, arkittu nuen beste leen-baratz bat, Auritz'ko lurretan nere ustez.

Zaho-ko-soro izena duen zelaian (« Albako-arri »-tik sortaldera) ikusiak ditut iru leen-baratz : bat Irurita'ko lurretan; besteak Aldude'koetan. An ba-da arri luze aundi bat ere, menhir baten tankerakoa.

Baigorri aldetik ere ba-ditut zenbait leen-baratz ikusiak. **Elorta** edo **Elorrieta**'ko lepoan arkittu nituan zazpi, denak saillean. Batzuek Baigorri'ko lurretan, besteak Errazu'koetan.

Armurak. — « Beaikolepo »-an (Banka'ko lurretan) ba-da armura edo **tumulus** bat. Bearbada lenago bazituen arri aundien batzuek. Orregatik toki ari **Traikarlepo** izena ezarri ziotela nago.

Beste **armura** bat ba-da **Sorogain'ko** tontor-inguruko apal batean ere.

Beste bat berriz **Elorta**'ko lepoan, leen esan ditugun baratzen ondoan.

Ikuska oetan Agirretxe (Aing.), Bilbao (Jon) eta Lasarte (Aing.) lagun izan nituen.

BARANDIARAN'go J. M.